

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

152

13/2007 LEGEA, abenduaren 27koa, Nekazaritza Ganberak azkentzekoa.

Eusko Legebiltzarrak, honako legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

13/2007 Legea, abenduaren 27koa, Nekazaritza Ganberak azkentzekoa.

ZIOEN AZALPENA

Nekazaritza-ganberen araubide juridikoaren oinarriak ezartzen zituen abenduaren 24ko 23/1986 Legea oinarritzko lege gisa ezarri zen bere edukiaren zati batean, administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak ezartzea (Konstituzioaren 149.1.18 artikulua) Estatuko eskumena dela argudiatuta; Lege hori Nekazaritza Ganberei buruzko ekainaren 15eko 6/1990 Legearen bitartez garatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoak, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.21 artikuluan oinarrituta, arlo horretan duen eskumenari jarraiki.

Estatuko lege horretan, probintzia bakoitzeko nekazaritza-ganbera bat egoteko beharra ezartzen zen, besteak beste. Agindu hori ekainaren 15eko 6/1990 Legean gauzatu gelditu zen, lurralde historiko bakoitzean lurraldeko nekazaritza-ganbera bana aurreikusi baitzen. Gainera, oinarritzko legeak ezarritako eginkizunei beste batzuk gehitu zitzaizkien, bai eta beren araubide ekonomikoa eta antolakuntza ere.

Abenduaren 24ko 23/1986 Legean oinarritzkotzat jotzen ziren artikuluek nekazaritza-ganberak kasuan kasuko lurraldeko nekazaritza-sektorerara hoberen egokitze-ko eta hari laguntza emateko autonomia-erkidegoen eskumena eta gaitasuna mugatu zuten, eta, hala, nekazaritza-ganberen arloan beren eskumen guztia erabiltzea eragotzi zen; eskumen hori, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan jaso zen, 10.21 artikuluan hain zuzen. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoak askotan eskatu dio Estatuari abenduaren 24ko 3/1986 Legearen oinarritzko kutsu hori ezabatzea.

Egoera horrek horrela segi ezin zuela ohartuta, beren eskumenen muga gainditu zuelako, eta denboraren poderioz eta sektorean egoera-aldaketarekin, nekazaritza-ganberak praktikan beren oinarritzko eginkizunak

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

152

LEY 13/2007, de 27 de diciembre, por la que se extinguen las Cámaras Agrarias.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente ley:

Ley 13/2007, de 27 de diciembre, por la que se extinguen las Cámaras Agrarias.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 23/1986, de 24 de diciembre, por la que se establecen las bases del régimen jurídico de las Cámaras Agrarias, se estableció como una ley básica en parte de su contenido, que se justificó en el ejercicio ordinario de una competencia estatal (la determinación de las bases del régimen jurídico de las administraciones públicas, artículo 149.1.18 de la Constitución) y que la Comunidad Autónoma del País Vasco desarrolló mediante la Ley 6/1990, de 15 de junio, de Cámaras Agrarias, en ejecución de su competencia en la materia, basada en el artículo 10.21 del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

En la precitada ley estatal, entre otras cuestiones, se establecía la obligatoriedad de la existencia de una cámara agraria por provincia. Este mandato se materializó en la Ley 6/1990, de 15 de junio, en la existencia en cada territorio histórico de una cámara agraria territorial, y se añadieron, además, funciones a las ya establecidas por la ley básica, así como su régimen económico y su organización.

La parte del articulado declarado básico de la Ley 23/1986, de 24 de diciembre, constreñía la competencia y capacidad de las comunidades autónomas para regular las cámaras agrarias como mejor se adecuaban y pudieran servir a los intereses del sector agrario en su territorio, impidiendo el ejercicio pleno de su competencia en materia de cámaras agrarias; competencia que se recoge de forma expresa, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, en su artículo 10.21. Por esta razón, en múltiples y sucesivas ocasiones la Comunidad Autónoma del País Vasco ha solicitado del Estado la eliminación del carácter básico de la Ley 23/1986, de 24 de diciembre.

Consciente de que esta situación no podía mantenerse, por extralimitar sus competencias, y porque con el paso del tiempo y el cambio de circunstancias en el sector las cámaras agrarias en la práctica habían perdido

galdu zituztelako, Estatuak irailaren 30eko 18/2005 Legea argitaratu zuen. Lege horrek indargabetu egin zuen nekazaritza-ganberen araubide juridikoaren oinarriak ezartzen zituen abenduaren 24ko 23/1986 Legea. Indargabetze horrek ez du esan nahi egun dauden nekazaritza-ganberak ezabatu edo azkendu egingo direnik, baizik eta Estatuko oinarriko araudia ezabatu egiten dela. Hala, autonomia-erkidegoen esku egongo da, beren eskumenak gauzatzearen barruan, ganberak desagertzea edo mantentzea eta arautzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritza-ganberen araubidea Nekazaritza Ganberei buruzko ekainaren 15eko 6/1990 Legeak garatu zuen. Aholkularitza-eginkizuna eta administrazio publikoei laguntzeko eginkizuna duten zuzenbide publikoko korporazioak direla jasoz eta horrez gain, beren antolamendua, araubide ekonomikoa eta langileen araubidea eta ordezkari-tza arautu ziren.

Denboran aurrera egin ahala, zuzenbide publikoko korporazio gisa Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ganberak egiten zituzten eginkizunak gain behera etorri ziren, eta Administrazioari eskaintzen zioten laguntza gutxika-gutxika txikituz joan zen desagertu egin zen arte. Hori dela bide, Eusko Jaurlaritzak nekazaritza-ganberei ematen zien finantziazioa kendu egin zen eta ganberekin sinatutako hitzarmenak salatu eta azkendu egin ziren; gainera, langilerik gabe gelditu ziren. 1999az geroztik, ganberetako osoko bilkuretako kide batzuek erakunde batzuetan parte hartzea mugatu zen nekazaritza-ganberen jardura, hain zuzen ere landa-errentamenduen arbitraje batzordeetan (hondar-eginkizuna zen, eta gainera, Landa Errentamenduei buruzko azaroaren 26ko 49/2003 Legearen ondorioz, gaur egun ez da existitzen) eta nahitaezko desjabetzako epaimahaian (jardura hori ere gaur egun ez da existitzen).

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ganberak ez daude jardunean; zuzenbide publikoko korporazio gisa juridikoki existitzen dira, baina ez dute eginkizunik gauzaten eta ez dute finantziatorik.

Abenduaren 24ko 23/1996 Legeak ezartzen zuen betebeharra, hau da, probintzia bakoitzeko nekazaritza-ganbera bat egoteko beharra, ezabatu ondoren (irailaren 30eko 18/2005 Legeak indargabetu zuelako), zuzenbidean egitatezko egoera bat egokitu behar da. Hori dela bide, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeko nekazaritza-ganberak bertan behera gelditzen dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ganberak arautzen dituen ekainaren 15eko 6/1990 Legea indargabetu egiten da; hori lege honetako artikuluko barrean jasoa da.

Azken zatiak bi xedapen gehigarri dauzka, nekazaritza-ganberen ondarea likidatzea eta, Kode Zibilarren 39. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, nekazaritza-interes orokorreko helburuetara eta zerbitzuetara bideratzea aurreikusten dutenak. Bestalde, xedapen indargabetzailerik bat dauka, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ganberak azkentzearen ondorioz funtsean ukituta

su funtzioak, el Estado ha publicado la Ley 18/2005, de 30 de septiembre, por la que se deroga la Ley 23/1986, de 24 de diciembre, por la que se establecen las bases del régimen jurídico de las cámaras agrarias. Esta derogación no supone la supresión o extinción de las cámaras agrarias existentes, sino la eliminación de la regulación estatal básica, y corresponde a las comunidades autónomas, en el ejercicio de sus competencias, la decisión sobre su extinción o su mantenimiento y regulación.

En la Comunidad Autónoma del País Vasco, el régimen de las cámaras agrarias fue desarrollado por la Ley 6/1990, de 15 de junio, de Cámaras Agrarias, que recogió su carácter de corporación de derecho público con funciones de consulta y colaboración con las administraciones públicas y reguló su organización, régimen económico y de personal, y su representatividad.

Con el paso del tiempo las funciones que desarrollaban las cámaras agrarias del País Vasco como corporaciones de derecho público fueron decayendo, siendo que la colaboración que prestaban a la Administración fue disminuyendo paulatinamente hasta ser inexistente, razón por la cual se eliminó la financiación que el Gobierno Vasco prestaba a las cámaras agrarias y se denunciaron y extinguieron los convenios formalizados con ellas, y se quedaron sin personal. Desde 1999, su actividad se redujo a la participación de algunas personas miembros de los plenos de las cámaras en las juntas arbitrales de arrendamientos rústicos (actividad residual y actualmente inexistente, como consecuencia de la Ley 49/2003, 26 de noviembre, de Arrendamientos Rústicos) y en el jurado de expropiación forzosa (actividad actualmente inexistente).

En el momento actual, las cámaras agrarias del País Vasco carecen de actividad, existen jurídicamente como corporación de derecho público, pero no desarrollan funciones y carecen de financiación.

Una vez suprimida la obligatoriedad de una cámara agraria por provincia que establecía la Ley 23/1996, de 24 de diciembre, debido a su derogación por la Ley 18/2005, de 30 de septiembre, procede que se adecue en derecho una situación de hecho, razón por la cual se procede a la extinción de las cámaras agrarias territoriales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y a la derogación de la Ley 6/1990, de 15 de junio, que regula las Cámaras Agrarias del País Vasco, lo que se recoge en el artículo único de la presente ley.

La parte final contiene dos disposiciones adicionales, que prevén la liquidación del patrimonio de las cámaras agrarias y, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 39 del Código Civil, su destino a fines y servicios de interés general agrario; una disposición derogatoria, en la que se procede a la derogación de un elenco de normas que se ven afectadas substancialmente por

gelditzen diren arauak indargabetzen dituena. Eta amaitzeko, lau azken xedapen dauzka, nekazaritza-ganberei berariazko aipamena egiten dieten zenbait arau aldatzen dituztenak eta legea indarrean sartuko den eguna zehazten duena; data hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo eguna izango da.

Artikulu bakarra.— Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ganbereren azkentzea.

Arabako Lurraldeko Nekazaritza Ganbera, Bizkaiko Lurraldeko Nekazaritza Ganbera eta Gipuzkoako Lurraldeko Nekazaritza Ganbera azkenduta gelditzen direla deklaritzen da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.— Lurraldeetako nekazaritza-ganbereren ondarearen likidazioa.

Lege hau indarrean jartzen denetik hasi eta gehinez sei hilabeteko epean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ganbereren ondarea erabat likidatu eta azkentzeko beharrezkoak diren eragiketa guztiak egingo ditu.

Bigarrena.— Nekazaritza-ganbereren ondarearen xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ganbereren ondarearen likidaziotik ateratzen dena Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian integratuko da, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren esku geratuko da, nekazaritzako interes orokorreko helburuetarako eta zerbitzuetarako erabiltzeko.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailari baimena ematen zaio aurreko lerrokadan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak egiteko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe uzten dira honako xedapen orokor hauek:

a) Ekainaren 15eko 6/1990 Legea, Nekazaritza Ganberei buruzkoa.

b) Apirilaren 25eko 94/1983 Dekretua, landa-errentamenduen arbitraje batzordeen funtzionamendurako arau osagarriak ematen dituena.

c) Ekainaren 6ko 106/1983 Dekretua, Bizkaiko Nekazaritza Ganberaren funtzionamendurako behin-behineko arauak ezartzen dituena.

d) Nekazaritza Sailaren abenduaren 5eko 267/1983 Dekretua, lurralde eta eskualdeetako nekazaritza-batzordeak sortzen dituena.

e) Eta lege honetan ezarritakoaren aurka egiten duten edo honekin kontraesanen dauden bestelako xedapenak, maila berekoak zein txikiagokoak.

la extinción de las cámaras agrarias del País Vasco; y cuatro disposiciones finales, que contienen la modificación de determinada normativa en la que se incluyen referencias expresas a las cámaras agrarias, así como la entrada en vigor de la ley, que será al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo único.— Extinción de las cámaras agrarias del País Vasco.

Se declaran extinguidas la Cámara Agraria Territorial de Álava, la Cámara Agraria Territorial de Bizkaia, y la Cámara Agraria Territorial de Gipuzkoa.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— Liquidación del patrimonio de las cámaras agrarias territoriales.

En el plazo máximo de seis meses desde la entrada en vigor de la presente ley, el Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación llevará a cabo todas las operaciones necesarias para la total liquidación y extinción del patrimonio de las cámaras agrarias del País Vasco.

Segunda.— Destino del patrimonio de las cámaras agrarias.

El resultante de la liquidación del patrimonio de las cámaras agrarias del País Vasco se integrará en la Tesorería General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y quedará afecto al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, para su aplicación a fines y servicios de interés general agrario.

Se autoriza al Departamento de Hacienda y Administración Pública a realizar las modificaciones presupuestarias necesarias para el cumplimiento de lo dispuesto en el párrafo anterior.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas las siguientes disposiciones generales:

a) Ley 6/1990, de 15 de junio, de Cámaras Agrarias.

b) Decreto 94/1983, de 25 de abril, por el que se dictan las normas complementarias de funcionamiento de las juntas arbitrales de arrendamientos rústicos.

c) Decreto 106/1983, de 6 de junio, por el que se establecen normas provisionales para el funcionamiento de la Cámara Agraria Provincial de Vizcaya.

d) Decreto 267/1983, de 5 de diciembre, del Departamento de Agricultura, por el que se crean los consejos agrarios territoriales y comarcales.

e) Y cuantas otras disposiciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan a lo dispuesto en la presente ley.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Nahitaezko desjabetzako lurralde-epaimahaien funtzionamendu-arautegia onesten duen irailaren 20ko 244/1988 Dekretua aldatzea.

Nahitaezko desjabetzako lurralde-epaimahaien funtzionamendu-arautegia onesten duen irailaren 20ko 244/1988 Dekretuaren 5. artikulua 2. paragrafoan,

Honen ordezkari:

«... Probintziako Nekazaritza Ganberaren ordezkaria; ...».

Hau jarri behar da:

«... Nekazaritzako Ingeniarien Elkargo Ofizialaren ordezkaria, goi-mailako titulua duena; ...».

Bigarrena.– Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen funtzioei, osaerari eta funtzionamendu-araubideari buruzko urriaren 2ko 262/1990 Dekretua aldatzea.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen funtzioei, osaerari eta funtzionamendu-araubideari buruzko urriaren 2ko 262/1990 Dekretuaren 3. artikulua 1. atalean,

Honen ordezkari:

«- Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ganberaren ordezkari bat»,

Hau jarri behar da:

«- Nekazaritzako Aholku Mahaiak gehiengoz aukeratutako pertsona bat».

Hirugarrena.– Arautegi-aldaketan maila.

Azken xedapenetako lehenengo eta bigarrenak aldatutako arautegi-xedapenek araudi izaten jarraituko dute eta, beraz, etorkizunean horien maila bereko arauk aldapenak egin ahal izango dituzte xedapen horietan.

Laugarrena.– Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abenduaren 28a.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Modificación del Decreto 244/1988, de 20 de septiembre, por el que se aprueba el reglamento de funcionamiento de los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa.

En el apartado 2 del artículo 5 del Decreto 244/1988, de 20 de septiembre, por el que se aprueba el reglamento de funcionamiento de los jurados territoriales de expropiación forzosa,

Donde dice:

«... el representante de la Cámara Agraria Provincial; ...».

Debe decir:

«... el titulado superior representante del Colegio Oficial de Ingenieros Agrónomos; ...».

Segunda.– Modificación del Decreto 262/1990, de 2 de octubre, de funciones, composición y régimen de funcionamiento del Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco.

En el apartado 1 del artículo 3 del Decreto 262/1990, de 2 de octubre, de funciones, composición y régimen de funcionamiento del Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco,

Donde dice:

«- Un representante de las Cámaras Agrarias del País Vasco»,

Debe decir:

«- Una persona elegida por mayoría de la Mesa Consultiva Agraria».

Tercera.– Rango de las modificaciones reglamentarias.

Las disposiciones reglamentarias modificadas por las disposiciones finales primera y segunda no perderán su carácter reglamentario, y, por tanto, sus posibles modificaciones futuras podrán ser efectuadas por normas de su mismo rango.

Cuarta.– Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2007.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.